



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

Leire Bazterrika Loiarte.  
Francisco Michelena Celayeta.  
Ezekiel Loiarte Santesteban.  
Imanol Baleztena Elizalde.  
Martxel Elizalde Elizalde.  
Pedro Hilario Santesteban Loyarte.

2019eko irailaren 4ean, 20:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

## **1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.**

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez** erabaki du aurreko bilkurako akta **onartzea**.

## **2. URAREN KUDEAKETA: BEHE HORNIDURA.**

Udalburua Prozedimendu Administratiboaren 39/2015. Legearen 23. Artikuluaren arabera bilkura aretotik atera eta eztabaida eta bozketatik abstenitu egin da. Hau horrela izanda, Alkateordea den Leire Bazterrikak, gaia azaldu du. Bada bizilagun bat uraren behe hornidurarekin arazoak dituena. Bere egunean Udalak bajan eman zion. Bizilagunak oraindik ere altan dagoela aldarrikatu du. Egoera horrela izanda Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak hurrengo **erabaki du**:

Alde 6  
Abstentzio 1

**1.- Behe horniduran eman den baja hori bizilagunari jakinaraztea, berak baja hori berrestu nahi duela edo altan eman nahi duela Udalari idatziz komunikatzeko.**

**2.- Bere aukera Udalari idatziz komunikatzeko bi asteko epea ematea jakinarazpena jasotzen duen egunetik aurrera. Erantzunik jaso ezean Udalak baja berretsi duela ulertuko du.**

**3.- Baja berretsi egiten bada, udal langilea ura moztera joanen da. Altan ematea erabakitzen bada aldiz Udalak altan eman eta bizilagunak kontadorea patu beharko du.**

Beste alde batetik, eta Udalburua berriro bilkura aretora sartu delarik, Ur depositoarekin izan den arazoa azaldu da, eta arazo tekniko horien erruz galdu den ur kopuruaren inguruan kezka dago zinegotzieren artean. Uraren kudeaketa eramaten duen enpresaren baliabide teknologiko eta pertsonalen eraginez, deposituak ura arintzen ibili delako, eta horrek Udalarentzat kostu ekonomikoa ekarri du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

**1.- Malerreka Mankomunitateari egoera honen berri ematea, bi gauza eskatuz:**

**-Hasierako estadio batean, galera ekonomikoaren zama bere gain hartzea (Uraren kudeaketaren erakunde arduraduna den heinean eta kudeaketa eramaten duen enpresak kostu ekonomikoa hartzen duen bitartean).**

**-Uraren kudeaketa esleitu zaion enpresari arazoek kargak bere gain hartzeko behar diren akordio eta pausuak ematea.**

### **3. BESTETAKO ZUHAITZAREN ENKANTEA.**

Ohitura denez, Udalak bestetan jartzen den zuhaitza enkantean ateratzeko akordio hartu du **aho batez**. Enkantearen bandoa egin eta banatzen denetik aste bateko epean eskaintzak egiteko aukera izanen da. Bandoan ere zuhaitza erretiratzeko epea zehaztuko da.

### **4. ERROTAKO BISITARIEI TALOAK ESKAINTZEKO KONTRATUA.**

Badago azkenaldian Errotako bisitarien zerbitzuaren harira Udalean kezka. Izan ere, bisita gidatua eskaintzen bada ere, zerbitzu gastronomikorik ez da eskeintzen. Hori dela eta Udalak zerbitzu hori sustatzeko hainbat pausu eman ditu, lekuko jatetxeekin kontaktuan jarrita adibidez. Ez denez ezer lortu, Udalak zerbitzu hori emateko aukera bizilagunen artean hedatzea baloratu du. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez hurrengo erabaki du:**

**1.- Errotan taloak egiteko aukera ematea bizilagunei Errota bisitatzera joan diren bisitariek zerbitzua izan dezaten eta interesaturik dagoen bizilagunak etekin ekonomikoa lor dezan.**

**2.- Udalaren ideia jaiegunetan gutxienez zerbitzua ematea da. Hala ere, Udalak ez dakenez zein den bizilagunak emateko prest dauden zerbitzua, bandoa egin eta proposamen desberdinak jasotzeko aukera emanen du (ordutegien arabera, prezioen arabera, kopuruen arabera...).**

**3.- Iragarki hau Xorroxinen hedatzea jendeak aukera honen berri izan dezan.**

### **5. ESKAERAK.**

Ez dago eskaerarik.



**ZUBIETAKO UDALA**  
(Nafarroa)  
31746

## **6. MOZIOAK.**

Udalburuak beste zinegotziekin prestatutako mozioa aukeratu du, erakunde bezala aitortzen bat egiteko. Irakurritako mozioaren edukia hurrengoak izan da:

“Zubietako Udalak zera adierazten du:

-Herriko bestetan Zubietako plazan agertutako kartel batzuekiko desadostasuna. Kartel horiek mezu iraingarriak eta itsusiak helarazi dituzte, lekuz kanpokoak. Zubietako udalaren ustez, halakoak helarazteak ez du bat ere genero berdintasunaren bidean laguntzen.

-Udaletxeko fatxada ez da erabiltzen ahal, edozein kartel edo mezu paratzeko; leku hori udalbatzari baitagokio bere adierazpenetarako.

-Berresten duela bere konpromisoa ”Malerreka errespetuzko harremanen alde” Eraso matxistarik ez! Lelorean Malerrekako Gizarte Zerbitzuek antolatutako kanpainarekin. Hori dela eta Udaletxeko eraikinean Malerrekako herri guztiek adostutako lema daraman pankarta zintzilikatuko du bestetan, inauterietan, Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna eta Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean.

-GURE KONPROMISOA Herri Erakunde gisa, era aktiboan ezberdintasunen eta emakumeen eta gizonen arteko harreman ez orekatuen kontra lanean jarraitzeko.

-GURE ELKARTASUNA edozein eraso jasan izan duten gizon zein emakumeekin.

-ETA HERRITAR GUZTIAK GONBIDATZEN DITUGU, indarkeriaren aurrean gaitzespen jarrera erakusten jarraitzeko.”

Udalbatzak **aho batez onartu du** mozioa.

## **7. ALKATE EBAZPENAK.**

Alkateak emandako ebazpenen berri eman du (66/2019. ebazpenetik 83/2019. ebazpenera), eta Udalbatza jakinaren gainean geditu da.

## **8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.**

Udalburuak hurrengo gaiei buruz Udalbatza informatu du: Kantauriar Isurialdeko Konfederazioak, Errotaren sarreran hobekuntza lanak egiteko emandako baimena (A/31/03803); Ingurugiro Zerbitzuak Jose Luis Santesteban Elizalde jaunari emandako 2. luzapena oihan aprobetxamendua ateratzeko 1 poligonoko 163. lurzatian (3120153158. espediente); ANIMSA-k zuntz optikoa Udalera ermamateko egin duen eskaintzaren aurrekontua; Uraren goiko eta beheko horniduran hobekuntzak egiteko inbertsioetarako



## ZUBIETAKO UDALA

(Nafarroa)

31746

dauden diru laguntzen harira, mankomunitateko Udalek egin beharreko ekarpenak; Malerrekako Asanbladako eta Etxebizitzen Patronatuko bilkuren deialdiak; Zentraleko eta Olazarreko bideetan izandako istripuen konponketen bukaera; Ingurugiro Zerbitzuari bidalitako oihan aprobetxamendu eskaera –Ana María Múgica Santesteban–; NASUVINSA-k, Idazkariaren etxearen eraberritzearen inguruan egindako bertaratzea eta plano eta balorazio ekonomikoa egiteko hartutako konpromezua; Pisu tutelatuak Mankomunitatearen jabetzatik, ehunekoetan eta haien osotasunean Patronatua osatzen duten herrien esku igarotzeko Nafar gobernuak emandako oniritzia; Jubilotekaren zerbitzua iragartzeko eta sustatzeko kanpainia; FEMP-ek Estatu Idazkaritzak emandako ebazpenaren inguruan egindako jakinarazpena, genero indarkeriaren aurka borrokatzeko emandako dirulaguntzena; Cedernaren zuzendaritza batzordearen eraketarendako aurkeztutako hautagai zerrenden jakinarazpena; Cedernak Hauteskundeak direla eta, Udalen ordezkariak izango direnen izendapenen inguruan egin duen jakinarazpena; NASERTIC-ek zuntz optikoa Doneztebetikan Zubietaraino hedatzeko aurkeztutako proiektu eta eskaera; Foresnak Oihan Lanetarako Dirulaguntzak lortzeko, partikularrekin, Nafar Gobernuan aurkeztutako landaketa proiektuak (zinegotziek oharra egin diote idazkariari, landaketa egin ahal izateko alkate ebazpen bidez Udalak baimena eman behar duela ohartaraziz).

### 9. GALDE-ESKEAK.

Francisco Michelena zinegotziak Udalbatzari eskatu dio, Labayen eta Zubietaren arteko mugan dagoen bidearen egoera dela eta, zerbait egin beharko lukeela Udalak. Izan ere sasiak hartua dute bidea eta hauek garbitzea ezinbestekoa da.

### 10. PROPOSIZIOAK.

Udalbatzak presazkoa dela ulertuta **aho batez onartu du** gai ordenean sartuta ez zegoen gai hau sartzea eta eztabaidatzea. Beheko etxearen egoera arriskutsua dela eta Udalak zerbait egin behar duela azaldu du Udalburuak. Udalburuak bozkatzera deitu du eta Udalbatzak **aho batez erabaki du**:

**1.- Beheko etxeko jabeen egoera txarraren berri ematea.**

**2.- Egoera txarrak ekar ditzakeen arriskuak direla eta, konpontzeko eskatzea. Belarrak motz mantentzea eta eraikina berritzea hain zuzen ere, suteak edo erortzeak ekiditzeko.**

**3.- Udalaren postura, jabeek ezer egin ezean, beste bide batzuetatik eta behar diren neurriak hartzea dela.**

Eta bertzerik ezean, 21:00ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.